

## **EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN**

### **AKTA**

2016ko apirilaren 19a

Gasteizen, 2016ko apirilaren 19an arratsaldeko 17:00ak direnean, Eusko Legebiltzarreko egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordeko lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta batzordeko kide diren Andres Maria Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., Jose Ramon Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta Maria Carmen Agoues Mendizabal and. Batzordeko idazkari den Begoña Basarrate Aguirre and. ere bileran egon da. Honako erabaki hauek hartu dituzte:

### **ERABAKIAK**

**LEHENA.- 1/2015, 2/2015, 3/2015 eta 4/2015 ESKUMEN-ARAZOETAN IZENDATUTAKO TXOSTENGILEEK AURKEZTUTAKO TXOSTEN-ZIRRIBORROEN AZTERKETA. AIPATUTAKO ESKUMEN-ARAZOAK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, ARABAKO BATZAR NAGUSIEK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK AURKEZTU ZITUZTEN, HURRENEZ HURREN, “EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ERAKUNDEEN BARNE-ANTOLAKETARI” BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURKA.**

Carmen Agoues Mendizabal and.ak txosten-zirriborrea aurkeztu zuen “eskumena Foru-Ogasunen arloan eta udalerriek duten finantza-tutoretza gauzatzea” gaiari buruz. Txosten-zirriborro horren azterketa xehekatuari ekin zaio.

Esandako txostena eztabaidatzen hasi aurretik, adierazi du txostenaren behin-betiko idazketa egingo duela bai txostenaren eztabaidari bai ondorengo erabakiari begira adierazitako irizpideekin bat eginez.

**EBAZPEN BATZORDEA**  
**COMISIÓN ARBITRAL**

Era berean, Kepa Bilbao Gaubeka txostengile jn.ak adierazi du testu bat bidaliko duela hurrengo bileran onar dadin eta bertan jasoko direla egin diren zenbait iradokizun.

**BIGARRENA.- APIRILAREN 7ko 2/2016 LEGEA INDARREAN SARTZEARI BURUZ ABIAN DEN EZTABAIDAN IZAN DAITEKEEN ERAGINA.**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean sartzeari buruz abian den eztabaidan izan daitekeen eragina planteatu da. Horren harira, egiaztatu da lege-testu berrian jasota daudela finantza-araubideari eta udalerriekiko lankidetzaren instituzionalari buruzko erregulazioak. Izapidean dauden eskumen-arazoak sustatu dituzten zenbait erakundek erregulazio horien aurkako alegazioak aurkeztu dituzte, hain zuzen ere. Eskumen-arazook “Euskal Autonomi Erkidegoko Erakundeen Barne Antolaketari” buruzko lege-proposamenari dagozkio.

Lehendakariak erabaki-proposamen bat egiteko ardura hartu du kontu honi buruz entzuteko izapidetzea zabaltzeari begira, Ebazpen Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legeko 32 artikuluan aurreikusi bezala.

Daukagun denbora-tartean ez dagoenez astirik esleitutako txostenak aztertzen jarraitzeko, zain geratzen da Ebazpen Batzorde honen hurrengo saioan horiek zehazteko.

Azpitarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, 20:00ak direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saio baterako, zeina 2016ko maiatzaren 10ean egingo baita, 17:00etan, Bizkaiko Batzar Nagusien egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.